


la solución dada a la cuestión foral permitirá distinguir diversas actitudes entre los partidarios del *fuerosismo* a secas (al lado de los euskalerríacos vizcaínos, los éuskaros navarros revelan una mayor densidad intelectual y complejidad al tiempo con relación al nacionalismo vasco).

Desde esta perspectiva, la pregunta que queda aún pendiente tras el estudio de Corcuera es si la identificación ideológica de Sabino Arana y del nacionalismo vasco con el catolicismo y el tradicionalismo –con antiliberalismo en suma, como recalca el autor– es fruto de una tradición cultural dominante dentro del País Vasco, o responde más bien a los reduccionismos propios de Sabino Arana en la percepción y lectura del debate vasco desarrollado a lo largo del siglo XIX. Lo que revela el universo mental de Sabino Arana es una fuerte reducción de la complejidad vasca, y en ese sentido la ideología nacionalista no debe ser juzgada tanto como el resultado necesario de un protonacionalismo cultural de signo tradicionalista, sino por el contrario como un constructo artificial que al ambicionar la homogeneidad consubstancial a la eternidad del mito, sumerge en el olvido los elementos heterogéneos y dispersos más propiamente constitutivos de una cultura histórica y política, que evoluciona, dialoga y se transforma con el tiempo. El nacionalismo de Sabino Arana consagró las *esencias* en contra de la pluralidad y el compromiso, que manifestaron desde el punto de vista intelectual y político las generaciones vascas anteriores, vinculadas al propio proceso de construcción del nuevo Estado liberal español. Sin duda, el pesimismo de fin de siglo marcado en España por el 98, afectó a los postulados originales de Arana, y si faltó en el País Vasco el soplo regeneracionista que se encuentra en la base del movimiento catalanista, preconizando una *España futura*, ello se debió en gran parte a la distancia respecto a las cosas de España que introdujo la abolición foral de 1876, juzgada con dureza por los mismos representantes vascos de las viejas generaciones liberales.

Juan María Sánchez-Prieto



**CRYSTAL, David**

**La muerte de las lenguas**

(Language Death, Cambridge University Press, 2000. - ISBN: 0-521-65321-5); Gaztelaniazko itzulpena: Pedro Tena. Madrid: Cambridge University Press, 2001. - 222 or. - ISBN: 84-8323-134-4.

Hizkuntzak sortu eta hil egiten direla aspalditik esaten den gauza da. Gizakiok geuretzat irudikatzen ditugun osasun edo bizi egoeraren ñabardura guztiak ezarri izan dira hizkuntzari. Hizkuntza bat osasuntsua, bizitasun handikoa, ajeak joa, erdi hilik, pattal, ahul, hilzorian, hilik dagoela esan eta idatzi da, nahiz eta hizkuntzaren izaera soziala izan.

David Crystalen lanak hizkuntzen heriotza bere gordintasun osoan aurkezten du helburu zehatz batekin: hizkuntzen heriotza ez da berezko baldintza biologikoa (gizakiok dugunaren antzera), beraz, zenbat eta gehiago jakin hizkuntzen izaeraz eta egoeraz, orduan eta aukera gehiago izango dira ezinbestekoa ez den heriotza hori saihestu ahal izateko. Ezagutzak sentsibilizazioa dakarren heinean, jendearen, eta gizarte osoaren, sentiberatze eta jarrearen aldarazteari begira idatzia dago liburu hau.

David Crystal, Bangor, galeseko unibertsitateko irakaslea da eta hizkuntza zientzietako alor bat baino gehiagotan aditua: haur hizkuntza, hizkuntza patologiak eta terapiak, fonetika-fonologia, hizkuntzen irakaskuntza, eta ingelesaren kanpo eta barne deskribapena, dira besteak beste, arrakastaz landu dituen arloak. Munduan zehar ezaguna egin duena, halere, bere "The Cambridge encyclopedia of language" liburua da. Hainbat hizkuntzetara itzulia eta egokitua, hizkuntza zientzietako alor nagusi guztiak aztertzen ditu bertan eta oso argigarriak diren adibide, irudi, taula, mapa eta gainerako osagarri grafiko ugari horniturik aurkezten da. Hain zaila den dibulgazio zientifikoaren eredu paregabea da liburu hau eta bertako azterketak sakonak eta eguneratuak dira, eta espezialistek ere, askotan erreferentzitarako erabili izan dituzte. Beste alde batetik, Crystal irakaslea, galaera hizkuntzaren defendatzaile eta haren erabileraren bultzatzaile bezala agertzen zaigu.

Hizkuntzen heriotzaz David Crystalek idatzi duen liburu honek, aipatu dugun sensibilizazio helburuari jarraiki, bost galdera arrunt baina garrantzitsuren inguruan biltzen du bere edukia: Hizkuntza baten heriotza zer da?, Zergatik arduratu behar dugu?, Zergatik hiltzen dira hizkuntzak?, Nondik hasi? eta, Zer egin daiteke?. Horretaz gain, bost eranskin aurki ditzakegu liburuan: Hizkuntzen biziraunpenaren alde diharduten zenbait erakunderen zerrenda, erreferentzia bibliografikoak, hizkuntza eta talde etnikoen indizea, autore eta hiztunen indizea eta edukien indizea. Mende eta milaurre berriarekin batera idatzia, ongi hautatutako aipamen askoz hornitua, irakurle zabalari begira erraz irakurtzeko ongi idatzia. Gaztelaniazko itzulpena ere dibulgazio eta sensibilizazio helburuari oso ongi egokitzen zaio.

Hizkuntza bat hil egiten da azkeneko hiztuna, edo hobe, azkenaurrekoa (lagun batek bakarrik ezin baitu inorekin hitz egin) hiltzen denean. Hala ere, heriotzaren aztarnak era askotara ikus daitezkeela agertzen da liburuaren lehen atalean. Heriotzaren kausak bat baino gehiago izan ohi dira eta egoera nahikoa larria den arte ez da ohartzen hizkuntza hilzorian dagoenik.

Hizkuntzaren aldakortasuna da heriotza arriskurik dagoen jakiteko begiratzen den alderdi horietako bat. Eta kontu honetan tentuz ibili beharra dagoela garbi erakusten digu egileak. Izan ere, aldakortasuna berezkoa du hizkuntzak biziraungo badu. Eten gabe aldatzen dira hizkuntza guztiak; osasuntsuenak eta indartsuenak ere hartzen dituzte ondoko hizkuntzetatik maileguak. Baina, dirudenez, hilzoria adierazten duten aldakuntzak zentzu/izaera ezberdina dute osasuntsu bizi direnetan gertatzen direnekin alderatuz. Hizkuntzaren arlo gehiago ukitzen du, gramatikaren eta hiztegiaren zenbait alor, eta denbora gutxiagoan gertatzen dira aldaketak. Aldakortasunari buruzko zehaztasun gehiago, halere, ez da liburu honetan ageri.

Hizkuntzen heriotzak, jakina, hizkuntza kopuruaren murrizketa dakar. Hizkuntzen zenbatekoari buruz, zenbat izan diren, zenbat bizi diren, zenbat hiltzen diren jakiteko, aditu ezberdinen ekarpenak aurkezten dira. Ikerlari gehienek 5.000 eta 6.000ko kopurua aipatzen baldin badute ere, hizkuntzen kontaketak arazo nagusiak dakartzala ere ongi erakusten da liburu honetan. Izan ere, hizkuntza zer den jakitea, hizkuntza baten eta bestearen arteko muga hain modu ezberdinean erabaki daiteke, non haren kontaketa oso zaila gertatzen den.. Garbi dagoena, nolahi ere, zera da: gaur egun inoiz baino hizkuntza gehiago desagertzen ari dela. Eta munduan hitz egiten diren hizkuntzei buruz geroz eta ezagutza zehatzagoa baldin badugu ere, oraindik hizkuntzalari-tza internazionalak ezagutzen ez dituen hizkuntzak egon badaudela esan behar, hizkuntza berriak sortzen ari direla ere egia den bezalaxe.

Hizkuntzen heriotza, heriotza guztiak bezala, gai garrantza eta samina izanik, aipu hunkigarri batzuekin amaitzen du kapitulua. Hona hemen aipu horietako bat:

“Hizkuntza baten galera ez da kontzeptu baten galera edo abstrakzio bat. Gertatzen dena pertsona batzuen jarrera aldaketa medio ondoko belaunaldiei bere hizkuntza erakutsi gabe uztera bultzatzen dituen da. Hizkuntza pertsoneri loturiko zerbait da eta ezin daiteke aztertu osatu behar den puzzle intelektualaren gisara. (Mary Rhydwen, 1998).

Bigarren atalean, “Zergatik kezkatu behar dugu?” galdetzen du egileak. Hizkuntzen heriotza zeinen kezkarria den frogatzeko ekologiaren arrazonomendua dakar hasiera hasieratik. Bioaniztasunaren mantentzea hain garrantzitsua baldin bada are gehiago dela hizkuntza aniztasunarena esango digu. Aldiz, oraindik gizarte zabala ez da galera honen sakontasun eta garrantziaz jabetu. Egia da, hizkuntza eta kultura guztietan ageri direla metaforak hizkuntzaren balioak azpimarratze aldera eta hainbat dakartza Crystalek liburu honetara. Berriki hil den Hale hizkuntzalari handiarena hau: “Eleaniztasunak elkarren pentsamendua ontzeko aukera eskaintzen digu”.

Zergatik da hain garrantzitsua hizkuntza aniztasuna mantentzea? Hona hemen zenbait erantzun: hizkuntzak herrien pedigria erakusten dutelako, giza pentsamenduaren osotasunean ezinbestekoak direlako, hizkuntzak guziaz tindatzen duelako, hizkuntzak bere baitan direlako interesgarriak, hizkuntza primitiborik ez dagoelako. Edozein dela ere aztertzen den hizkuntzaren alderdia, fonetika dela, morfologia, lexikoa edo hizkera moduak, giza pentsamenduaren emaitzarik landuena aurkituko dugu edozein hizkuntzetan. Mendebaldeko pentsamendu zabalduenean hizkuntza bakarraren aldeko joera gailendu izan den arren, hizkuntzak, eta hizkuntzarik ezezagun eta txikiak ere bai, altxor ezkutua dira beti. Jarrera da, beraz, aldarazi behar litzatekeena. Hizkuntzak aztertu gabe hiltzen doazen heinean, geure hizkuntza ikusmira gero eta murriztagoa izango da. Horregatik litzateke egilearentzat hain beharrezkoa eremu lana egitea.

Hockett-engandik (1958) jasoko du ondoko esaldi mamitsua: “Jarrerak aldatu behar dira, eta benetan, baina bene-benetan, sinetsi hizkuntza dela giza espeziearen ondasunik bakan eta preziatuena”.

Hirugarrenik, hizkuntzak zergatik hiltzen diren eta gainera hain abiada handian zergatik desagertzen diren galdetzen da liburu honetan. Hizkuntzak eten gabe ari dira desagertzen baina azken urteetan inoiz baino abiada handiagoan gertatzen dela esango zaigu. Kezka nahikoa berria denez, ezin jakin daiteke aurreko mendeetan zer gertatu den baina ikerlari ezberdinek ekarriko dute desagertze bortitzen lekukotasuna. Rodrigues (1993) aipatzen du, adibidez, Brasilen orain 500 urte 1.175 hizkuntza eta orain 200 baino gutxiago daudela esateko.

Hizkuntzak arriskuan jartzeko arrazoi bat baino gehiago dago. Arrazoi fisikoak mehatxu garbiak dira: goseteak, uholdeak, lehorteak, naturan gertatutako suntsipenak medio, pertsonekin batera desagertu eta hilzorian dira hainbat hizkuntza. Inguru fisikoak giza taldeen murriztea edo bizitokitik alde egin beharra dakar. Askotan, taldearen murriztearekin edo sakabanatzearekin batera hizkuntzaren ahultze eta desagertzea ondorio zuzena izaten da. 1998 urteko uztailaren 17an Papua Ginea Berrian lurrikara gogor batek eraginik 2.200 lagun hil eta beste 10.000 etxerik gabe geratu ziren. Bertan bizi ziren sisano, varapu, arop eta malol taldeen herrixkak erabat suntsitu ziren. SIL (Summer Institut of Language) erakundearen datuen arabera talde horietako batzuk lehendik ere txikiak izanik (5.000 lagunera heltzen zen talderik ez zegoen) orain egoera oso larrian izango direla erraz ikus daiteke. Arop eta varapu taldeetan 500 lagun baino gutxiago geratuko direla uste da. Nola gaindituko ote dute talde hauek bere bizitokitik alde egin beharra eta nola mantenduko bere hizkuntza?

Kultur asimilazioa da hizkuntzen desagertzearen beste mehatxu garrantzitsu bat. Jendeak beste hizkuntza hain erakargarri eta baliagarri ikusten duenean ez da harri-garria hizkuntza hori ikasi nahi izatea. Kontua, bestea ikasteko norberarena ahaztu eta baztertzea da. Beste hizkuntza bat ikasteak ematen duen poza, norberarena jakiteak ematen duen harrotasunarekin uztartzea litzateke irtenbidea.

Hizkuntzen desagertzea arrazoi askoren ondorio da eta hiltzorira eramaten dituzten egoerak ez dira beti antzekoak izaten. Prozesuak poliki eta modu konplexuan gautzen dira eta arrazoi berberak ez dute beti zentzu berean eragiten. Hiztun kopurua ez da beti eragilerik indartsuena; hizkuntza komunitate batean kanpotarren etorrera ere kalterako izan daiteke baina onerako ere izan daiteke, baldin eta kanpotarrentzat erakargarri eta baliagarri egiten bada hizkuntza hori. Hizkuntza berriak sortzen ari direlako (ingelesaren aldaki berriak eta hainbat lekutako kreol hizkuntza jaio berriak, adibidez) ezin da, bestalde, lasai geratu; hiltzorian eta desagertzen ari diren hizkuntzak askoz ere gehiago direlako, eta aniztasuna, hemen ere, biologian bezala, ezinbesteko osasun baldintza oinarrikoa delako gizakiontzako.

Nondik hasiko gara? galdetzen da laugarren atalean. Arazoa hain da larria eta hain da mundu osora zabaltzen den galera, ezin dela konponbide errazeko biderik aurkitu. Ekintzak zuhur, tentuz eta modu adostuan bideratu beharra izango litzateke lehenengo legea. Hainbat kasu ezagun bada gaur, komunitateko hizkuntza berreskuratu edo egoera zailetan mantendu daitekeela frogatzen duenik. Heriotza ezinbesteko patua ez dela ikusi da zenbait lekutan. Hogeigarren mendearen azken hamarkadan hizkuntzalarien kezka inoiz ez bezala areagotu da, nazioarteko kontzientzia ere badirudi pizten ari dela. Joera horren adibide 1996ko Bartzelonako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertuala aipatzen du egileak. Hala ere, arazoaren larria halakoa izanik, lehentasunak ezarri beharra gogoratzen digu. Hasteko egoera ezagutu egin behar da. Hizkuntzaren, hizkuntza bakoitzaren, bizitasun maila ezagutzea ezinbestekoa da haren alde zerbait egin ahal izateko. Bitartekoak izango dira, ondoren, eskuratu behar direnak. Eta hizkuntza komunitateak berak bere kasa ezin baldin badu, kanpotik lagundu beharko da. Hizkuntza, gosea, osasuna eta beste oinarriko beharren parean jarri beharra azpimarratuko digu, ondoren, egileak. Beste alde batetik, gizataldeak berak bere hizkuntzaren kontra hartutako erabakia ezin onartu daitekeela erakutsiko digu. Eta hori erakusteko Nicholas Ostleren (1996) aipuaren zati bat ekarriko dugu hona: "Garai jakin batean komunitate batek bere hizkuntza ahaztu eta komuna den hizkuntza "franko" bat bere egitea erabaki dezake. Sarritan uler daitekeen helburu ekonomikoa izan ohi du aukera horrek. Arazoa, helburua aldatzen denean sortzen da, edo lortu den helburua garrantzirik gabekoa ikusten denean. Orduan ezin da atzera jo: norberaren hizkuntzak eskaintzen zuen nortasun eta izaerarako aukera betirako galdua izango baita".


Hainbat lekutan hizkuntzaren biziberritze egoerak aztertu ondoren sei baldintza azpimarratzen ditu egileak emaitza onak ziurtatze aldera:

1. Arriskuan dagoen hizkuntza azkartuko da baldin eta bere hiztunak ospe handiagoa lortzen badute komunitate nagusiaren barruan.
2. Arriskuan dagoen hizkuntza azkartuko da baldin eta bere hiztunak komunitate nagusiak baino ongizate handiagoa lortzen badute.
3. Arriskuan dagoen hizkuntza azkartuko da baldin eta bere hiztunak komunitate nagusiaren barruan aginte handiagoa lortzen badute.
4. Arriskuan dagoen hizkuntza azkartuko da baldin eta bere hiztunak hezkuntza sistemaren barruan irudi indartsua baldin badute.
5. Arriskuan dagoen hizkuntza azkartuko da baldin eta bere hiztunak bere hizkuntza idatz badezakete.

6. Arriskuan dagoen hizkuntza azkartuko da baldin eta bere hiztunak teknologia elektronikoa erabil badezakete.

Kapitulua amaitzeko hizkuntzalarien eta biziberritze batzorde edo erakundeen zereginak zentzu handiarekin gogorarazten ditu. Egoeraren larria eta bitartekoen urritasuna nolabait arintzen hasteko, mundu osoan eta bereziki boterea dutenen artean kontzientziaren piztea eta areagotzea beste irtenbiderik ez du ikusten, helburu horrekin egindako lana amaitzeko.

*Itziar Idiazabal Gorrotxategi*



**CULTURA de élites y cultura popular en Occidente (Edades Media y Moderna)**  
García Fernández, Ernesto (Ed.). - Bilbao : Universidad del País Vasco, Servicio Editorial, 2001. - 232 p. - ISBN: 84-8373-341-2.

El Departamento de Historia Medieval, Moderna y América de la Universidad del País Vasco lleva a cabo desde hace varios años una importante labor de difusión de la investigación histórica, como ha quedado reflejado en la publicación de un buen número de magníficas tesis doctorales y de los resultados de variados y ricos seminarios (como los cinco celebrados de historia de las mentalidades). En esta línea deben enmarcarse las Primeras Jornadas de Estudios Históricos sobre “Cultura, Educación y Sociedad en Europa y América” celebradas en octubre de 1999 y cuyos resultados han sido publicados en este libro bajo la dirección de Ernesto García Fernández, y que van dedicados a la memoria del fallecido catedrático de Historia de América, el Dr. Ronald Escobedo. Centrado en la problemática y discutida división entre cultura de elites y cultura popular, la obra reúne ocho contribuciones, que van de la Alta Edad Media al siglo XVIII, y que son un reflejo de la variedad de enfoques y perspectivas a la hora de abordar el estudio y análisis de este complejo y apasionante tema.

Dos instituciones fueron las protagonistas de la cultura de elites durante la Edad Media. Por un lado los monasterios, centros fundamentales en la conservación e irradiación de la cultura medieval. Las ponencias de Javier García Turza y de Emiliana Ramos al estudiar los monasterios de San Millán de la Cogolla y de Valpuesta, respectivamente, demuestran la importancia que ambos tuvieron en la difusión de las novedades culturales en Castilla entre los siglos X y XIII. Así San Millán fue, en palabras de García Turza, “el escritorio altomedieval más productivo y original de obras lexicográficas de toda la Península Ibérica”. En ambos casos son varias las circunstancias que confluyen y que explican su desarrollo. Una importante romanización y cristianización del territorio; la existencia de una tradición eremítica y cenobítica previa en los siglos VI y VII; un importante núcleo de población autóctona; la llegada de grupos humanos procedentes de territorios circundantes, bien por ser refugio de la población hispano-goda tras la invasión árabe, bien por las iniciativas repobladoras con el inicio de la reconquis-